

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua:	01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala:	0160 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa
Programa:	600 - Berdintasuna
Funtzionala:	327 - Herritarren bizikidetzaren sustatzea

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Organoak bizitzako eremu guztietan emakume eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna lortzeko lan egiten du. Alde batetik, foru politika guztietan genero ikuspegia txertatzen lagunduz, eta bestetik, lurralde mailan tokiko berdintasunerako politikak sustatuz, talde feminista eta emakume taldeen lana indartuz eta gizartearen berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa eta giza aldaketa eraginez.

Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoan emakumeen jardueraren tasa % 52koa da, eta gizonena, berriz, % 63koa. Lansaio motari dagokionez, lanaldi partziala duten biztanleen % 83 emakumeak dira, eta % 17 gizonak.

Halaber, kontziliazio neurriak erabiltzen dituzten pertsonen % 95,5 emakumeak dira, eta % 4,5 gizonak. Gauza bera gertatzen da familiarterako zaintzeko eszedentzien kasuan: haurrak zaintzeko eszedentzia hartzen duten pertsonen % 95 emakumeak dira, eta beste familiarterako batzuk zaintzeko, berriz, % 82,2.

Bestalde, etxeko lanen eta zaintza lanen banaketari buruzko datuen arabera, enplegua duten emakumeek, oraindik ere, gizonen baino hiru ordu gehiago lan egiten dute egunero jardueraren horietan. Era berean, emakumeek denbora gutxiago erabiltzen dute prestakuntza jardueretan, aisia pasiboan, aisia aktiboan eta kirolean. Horrek ondorio ekonomikoak ditu emakumeentzat. Horrela, soldata arrakala %25ekoa da, gizonen soldataren batz bestekoa 28.076 baita, emakumeena, aldiz, 21.018koa. Are gehiago, emakumeen batez besteko errenta pertsonala % 59,5ekoa da, gizonen batez besteko urteko errentaren aurrean EAEn, eta % 61ekoa Gipuzkoan. Alegia, emakumeek 15.076 euroko diru sarrerak dauzkatala urtean, eta gizonen 24.680 eurokoa.

Datu horiek agerian uzten dute, oraindik ere, lan banaketa klasikoaren eta genero eginkizunen banaketaren aztarnak daudela, eta horiek pobrezia feminizazioa, emakumeen aurkako indarkeria eta emakumeen bizi baldintzak okertzea dakartela.

Beharrendaren deskribapen xehatua:

- Indarkeria jasaten duten emakumeen arreta hobetzeko beharra
- Emakumeen independentzia ekonomikoa indartzeko beharra
- Etxeko eta pertsonen zainketa lanetan erantzunkidetasunaren beharra
- Zaintzaren inguruan erantzunkidetasuna lantzeko beharra

Nori zuzendua:

GFA, Tokiko administrazioak eta elkarteak eta talde feministak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Langileria - kanpoko asistentzia tekniko - aurrekontua.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

1. Planen diseinua, jarraipena eta ebaluazioa
2. Languneak martxan jarri eta koordinatu.
3. Gaitasun prozesuak diseinatu eta kudeatu.
4. Gidak, orientabideak eta jarraibideak landu,
5. Bestelakoak: diru-laguntzak kudeatu, txostenak egin, bilerak antolatu, egitura inter-instituzionaletan parte hartu.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Planak, aholkularitza eta egiaztatze txostenak, prestakuntza, diru-laguntzak, jarraibideak, sentsibilizazio

ekimenak, gidak, jarraipen txostenak.

Programaren arau esparrua:

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, 4/2005 Legea. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, 2/2015 Foru Araua.

EAEEn emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI plana Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Foru Plana Indarkeri sexistaren aurkako Aurre! Plan Kontziliazio eta erantzunkidetasun plana Administrazio arloko araubidea

2015-2019 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Helburu estrategikoa: Gure gizarte ongizate eta kohesio eredua sendotzea

Proiektu estrategikoa:

Urteko helburua: Genero ikuspegia eranstea foru politika publikoak definitzean, gauzatzean eta ebaluatzean

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Foru Planaren gauzatze mailan aurrera egitea	Ehunekoa	58,00	65,00	80,00	95,00
2/2015 Foru Arauaren gauzatze mailan aurrera egitea, epea daukaten mandatuen arabera	Ehunekoa	10,00	30,00	60,00	90,00

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

2/2015 Foru Araua mailaz maila garatzea

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data
Jarduketa ildoak, guztira	316.401,70			2017/01/01	2018/12/31
1.1 Ekintza Foru arauaren jarraipena.	40.307,12			2018/01/01	2018/12/31
1.2 Ekintza Aukera berdintasuna sustatu lurraldeko enpresetan (Etorkizuna Eraikiz).	143.787,46			2017/01/01	2018/04/30
1.3 Ekintza Sentsibilizazio ekintzak aurrera eraman.	109.653,56			2018/01/01	2018/12/31
1.4 Ekintza Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko azterlan eta ikerketak egin.	22.653,56			2018/01/01	2018/12/31

2. Jarduketa ildoak:

Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana gauzatzea



	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data
Jarduketa ildo, guztira	243.083,14			2018/01/01	2018/12/31
2.1 Ekintza Berdintasunerako foru programazioan jarraipena egitea, gai orokorretako ekintzen garapenean departamentuei aholkularitza emanaz.	78.614,24			2018/01/01	2018/12/31
2.2 Ekintza Kontziliazio erantzukiderako Planaren sustapena eta jarraipena egiteko asistentzia teknikoa	14.480,34			2018/01/01	2018/12/31
2.3 Ekintza Kontziliazio erantzukiderako planari lotutako ekintzen garapena	149.988,56			2018/01/01	2018/12/31
3. Jarduketa ildo: Indarkeria matxistaren aurkako borroka eta berdintasunerako politiken koordinazioa bultzatzea, bai Aldundian, bai lurraldean					
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data
Jarduketa ildo, guztira	238.820,14	43.965,00		2018/01/01	2019/12/31
3.1 Ekintza Indarkeri planari loturiko neurrien diseinuan eta jarraipenean laguntza teknikoa	94.339,80	43.965,00		2018/01/01	2019/12/31
3.2 Ekintza Erakundeen arteko Beldur Barik programari laguntza.	29.826,78			2018/01/01	2018/12/31
3.3 Ekintza Indarkeria Planari lotutako ekintzen garapena	114.653,56			2018/01/01	2018/12/31
4. Jarduketa ildo: Foru politiketan genero ikuspegia txertatzeko barruko foru egiturak indartzea eta garatzea					
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data
Jarduketa ildo, guztira	74.374,80			2018/01/01	2018/12/31
4.1 Ekintza Berdintasunari lotutako batzorde eta lan talde foralen koordinazio eta sustapena	74.374,80			2018/01/01	2018/12/31
5. Jarduketa ildo: Tokiko mailan berdintasunerako politikak bultzatzea, lurraldeko udalerrien aniztasuna kontuan izanik					

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data
Jarduketa ildoak, guztira	526.535,60			2018/01/01	2018/12/31
5.1 Ekintza Berdintasunerako toki politikak babestea dirulaguntzen bidez.	224.133,90			2018/01/01	2018/12/31
5.2 Ekintza Berdinbidean programaren garapena.	79.301,12			2018/01/01	2018/12/31
5.3 Ekintza Berdintasun teknikarien lan-gunea dinamizatu.	44.488,34			2018/01/01	2018/12/31
5.4 Ekintza BERDINBIDEAN programaren baitan kokatzen diren ekintza zehatzak	69.313,12			2018/01/01	2018/12/31
5.5 Ekintza Tokiko berdintasu politikak babesteko zerbitzua indartzea	89.645,56			2018/01/01	2018/12/31
5.6 Ekintza EHUko Berdintasunerako masterra babestea	19.653,56			2018/01/01	2018/12/31
6. Jarduketa ildoak: Beste erakunde batzuekin eta emakume elkarte eta mugimenduekin lankidetzan aritzea					
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data
Jarduketa ildoak, guztira	584.976,62	45.000,00		2018/01/01	2019/12/31
6.1 Ekintza Emakumeen elkarte eta mugimendu feministaren jarduerak babestea	269.307,12			2018/01/01	2018/12/31
6.2 Ekintza Partaidetzarako deliberazio prozesuak abiatu GUNEAN.	68.960,68			2018/01/01	2018/12/31
6.3 Ekintza Jakitun prestakuntza programaren garapenerako asistentzia teknikoak	93.267,80	45.000,00		2018/01/01	2019/12/31
6.4 Ekintza Emakumeen jabeakuntza eta parte-hartzea sozio-politikorako ekintzak eta espazioak babestu	94.133,90			2018/01/01	2018/12/31
6.5 Ekintza Emakume elkarteentzako asistentzia teknikoak proiektuen formulazioan laguntzeko.	19.653,56			2018/01/01	2018/12/31
6.6 Ekintza Irungo Alarde mixtoaren antolakuntza babestea.	39.653,56			2018/01/01	2018/12/31

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Berdintasunerako organoak zeharkako izaera du. Bere jarduera esparru eskusiboa da, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan foru politikak bultzatzea. Organoari dagokio: berdintasunerako foru politikak bultzatu, koordinatu, jarraitu eta ebaluatzea, udal mailan, berdintasunerako politikak sustatzeko neurriak ezartzea, Lurraldean sare eta praktika feministak indartzeko baldintzak sortzen laguntzea, indarkeria matxistaren aurkako foru politikak koordinatu, jarraitu eta ebaluatzea, herritarrak sentsibilizatzea eta gainerako euskal herri administrazioekin solaskidetza eta koordinazioa bermatzea.

Kuantifikazioa: 1.984.192,00 (% 100,00)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
Or 1. Prozedura administratibo guztietan genero ikuspegia txertatu.	(% 17,39)	Or 1.1. Departamentuko politika, plangintza, programa eta jardura guztien planifikazioa, inplementazioa eta ebaluazioa genero ikuspegitik egitea.	Sexuaren aldagaia eta lortutako emaitzen genero azterketa txertatzen dituzten azterketa eta ikerketen ehunekoa (egindako azterketa eta ikerketa guztiekiko). Berariazko trebakuntza jaso duen berdintasunerako koordinazio foru egituretan parte hartzen duten pertsonen ehunekoa (egitura horietan parte hartzen duten pertsona guztiekiko). Berdintasunerako klausulak jasotzen dituzten kontratu eta diru-laguntzen ehunekoa (egindako kontratu eta diru-laguntza guztiekiko).
		Or 1.3. Emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua erabakiak hartzeko foru organoetan, organo kolegiatuetan, balorazio eta kontratazio mahaletan, epai-mahaletan, etabar.	
		Or 1.4. Barneko zein kanpoko komunikazio inklusiboa, genero estereotiporik gabekoa, emakume eta gizonak berdin ikustaraziz eta hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista eginez.	
		Or 1.5. Sexu aldagaiaren txertaketa sistematikoa foru ikerketa eta estatistiketan, antzemandako desberdintasunen genero ikuspegiko azterketa, eta emakume eta gizonen egoerari buruzko berariazko diagnosi sektorialak egitea.	
		Or 1.6. Foru kontratu eta diru laguntzetan berdintasunerako klausulak txertatu eta beren jarraipena egitea, bai aurretiko balorazioa egiten denean eta bai, bereziki, lana betetzeko baldintzetan.	
		Or 1.7. Foru arautegiaren prestaketan genero ikuspegia txertatzea eta genero eraginari buruzko aurretiko ebaluazio txostenak egitea.	



Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
<p>Or 2. Berdintasunerako koordinazioa eta lankidetzak indartu.</p>	<p>(% 26,52)</p>	<p>Or 2.1. Berdintasunerako departamentuen arteko egituren indartzea, beti ere berdintasunerako planifikazioa eta jarduera koordinatu, hausnartu eta erabakiak hartzeko.</p> <p>Or 2.3. Gipuzkoako udalen berdintasunerako politikak sustatzea eta indartzea, berdintasunerako beren berariazko egiturak, berdintasunarekin lotutako tokiko proiektuak eta lan prozesuak lagunduz eta indartuz.</p> <p>Or 2.4. Erakundeen arteko trukaketa eta lan komuna egiteko espazioetan parte hartzea, esaterako Berdintasunaren, emakumeek jasaten duten indarkeriaren kontrako eta berdintasunaren aldeko euskal udalen sarea.</p> <p>Or 2.5. Gipuzkoako berdintasunaren aldeko mugimendu feministarekin eta emakumeen elkarten mugimenduekin parte hartzea eta elkarrizketa sustatzea eta koordinatzea.</p> <p>Or 2.6. Maila autonomikoan, mugaz bestaldekoan, estatuan eta nazio artekoan dauden berdintasunerako koordinaziorako eta lanerako espazioetan parte hartzea, esperientziak eta lan moduak partekatuz.</p>	<p>Berdintasunerako Batzorde Politikoaren, Azpibatzerde Politikoaren, Departamentu Arteko Talde teknikoaren eta Departamentuko barne unitateen bilera kopurua.</p> <p>Berdintasunerako Organoak parte hartu duen lurralde arteko erakundeen bilera eta topaketa kopurua.</p> <p>Berdintasunerako bere politikak egiteko laguntza jasotzen duten Gipuzkoako udal kopurua.</p>
<p>Or 3. Emakumeen ahalduntzea lagundu.</p>	<p>(% 21,30)</p>	<p>Or 3.1. Emakumeen etxeak eta emakumeen ahalduntzea lantzen duten eskola eta espazioak sortzen laguntzea eta indartzea, beti ere proiektu horiek sarean lan egin dezatela bultzatuz.</p> <p>Or 3.2. Gipuzkoako emakumeen ahalduntzea lortzeko dauden bitarteko eta jarduerak ezagutzera emango dituen informazio plataforma sortzea.</p> <p>Or 3.5. Emakumeen elkarten interesei eta beharrei erantzun dieten jarduerak programatzea GUNEA lan markoan.</p> <p>Or 3.6. Gipuzkoako emakumeen elkarten mugimendua eta mugimendu feminista indartzea, beraiek mapa aldizka eguneratuz eta berdintasunaren aldeko beraien proiektuak lagunduz.</p> <p>Or 3.7. Gipuzkoako udal txikietan, bereziki landa eremuetan, emakumeen eta feministen asoziazionismoari berariazko laguntza ematea.</p>	<p>Kooperatibismoa, ekintzaitza eta auto-enplegua sustatzeko programen genero-inpaktua (parte hartzearen gaineko sexuaren araberako datuak)</p> <p>GUNEAn, gizarte solasaldirako organoan, parte hartzen duten Gipuzkoako elkarte feminista eta emakumeen elkarte kopurua.</p> <p>Laguntza jasotzen duten Emakumeen Etxe eta jabekuntza eskolen kopurua.</p>



Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
Ba 7. Gipuzkoa nazioarte mailan proiektatzea erantzunkidetasunaren erreferente gisa, tokiko gobernantzarekin lotuta	(% 1,74)	Ba 7.1. Erreferentziatzko nazioarte mailako sareetan praktika egokiak eta partaidetza zaintzeko sistema bat sortzea (kongresuak, foroak, lantalde mistoak, etab.), politika publikoaren esparruko erantzunkidetasunari dagokionez.	Udalekin egindako lan saio kopurua. Europar erreferente diren eragile eta/edo sareekin izandako harreman kopurua.
Ba 8. Erreferentzia gehiago eta bultzada-gaitasun handiagoa ematea Foru Aldundiari erantzunkidetasun alorrean.	(% 2,17)	Ba 8.1. Genero zeharkakotasunari buruzko prestakuntza programa diseinatzea eta abian jartzea; programa hau kargudun politikoei zuzenduta dago, eta berdintasuna eta erantzunkidetasuna lantzeaz gain, gizon-emakumeak era orekatu batez ordezkatzeko, bistaratzeko eta kontuan hartzen dituzten harreman, komunikazio eta egikaritza ereduak garatzeko laguntasuna ere eskaintzen du. Ba 8.2. GFAREN konpromiso gutun bat prestatzea eta aurkeztea, kontziliazioaren eta erantzunkidetasunaren aldeko neurri eta konpromisoen dekalogo bat barne duelarik; erakundeak berak eta erantzukizun politikoa duten pertsona guztiek onartuko dute dekalogo hori alor guztietan. Ba 8.8. Klausula sozialak sartzea enpresen kontratazioan, dagokion jarraipen sistema barne, kontziliazio eta erantzunkidetasun esparruan erantzukizun aritzen diren enpresei lehentasuna emanez.	Langileen kudeaketaren esparruko foru langileen ehunekoa, sexuaren arabera banatuta, prestakuntza jaso dutenena kontziliazioaren eta erantzunkidetasunaren arloan. Berdintasuneko prestakuntza programan parte hartu duten kargu politikoen ehunekoa, sexuaren arabera banatuta.
Ba 3. Gazteen garapen pertsonalean eta profesionalean estereotipoek duten eraginaren gaineko prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzak garatzea Gipuzkoa eredu	(% 3,91)	Ba 3.3. Gazteen artean bokazio teknologikoak sustatzeko BiziLabe eta INSPIRA programei laguntza ematea, 10 eta 19 urte bitarteko neska gazteen artean bokazio zientifikoak, teknologikoak eta industrialak sustatzeko, ikerketa zentroen sarearen bitartez.	Ikasleen datuak, sexuaren arabera banatuak, lanbide heziketaren adar desberdinetan. Ikasleen datuak, sexuaren arabera banatuak, unibertsitateko gradu desberdinetan. Partaidetza datuak, sexuaren arabera banatuak, eskola kirolean maskulinizatuta eta feminizatuta dauden modalitateetan.
Ba 5. Toki tresnak eta zerbitzuak eskaintzea, denboraren eta egituren erabilera orekatua lortzeko	(% 1,30)	Ba 5.1. HERRITmo programa pilotua diseinatzea eta martxan jartzea, tamaina ertaineko udalerrri bateko toki esparruan denbora hobeto erabili ahal izateko, ordutegiakiko kultura berri bat aztertu eta garatzeko, eta udalerrietan denboraren erabilera egokia lortzeko (zerbitzu publikoak, komertzioa, garraioa, aisia, etab.).	Udalerrri txikietan kontziliazioarako sortutako ekipamendu eta zerbitzu balioaniztun kopurua. Kontziliazioa hobetzeko ordutegiak landu dituzten Gipuzkoako udalen ehunekoa.



Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
Ba 1. Plataforma digital bat sortzea eta dinamizatzea enpresa erantzunkideak sortzeko, on-line ekintzak nahiz presentziazkoak dituztenak.	(% 2,61)	Ba 1.4. Praktika egokien eskualde sarea dinamizatzea, prestakuntza, eskualdeetako agentzien bitartez informazio eta tokiko praktika egokiak jasotzen dituen programa bat diseinatuta, betiere enpresak sensibilizatzeko eta babesteko ahaleginetara zuzendua, batez ere enpresa txiki eta ertainak, kudeaketa erantzunkideko ekintzei eta politikiei dagokienez.	<p>Plataformari atxikitako Gipuzkoako enpresen ehunekoa</p> <p>Kontziliaziarako neurri berrien kopurua, parte hartzen duten enpresetan ezarritakoak plataforman parte aktibo izatera pasa ondoren.</p> <p>Kontziliazio erantzunkiderako neurriak txertatu dituzten enpresa kopurua, kudeaketa aurreratuko prozesuen esparruan.</p>
		Ba 1.8. Gipuzkoalab: laborategitik gizartera tokiko ikasketa esperientziak sozializatzea, ekimenean parte hartzen duten enpresek prestatutako programa pilotuak zabaldua, lan espezifikoko saioak eginda, gidaliburuak eta materialak prestatuta, eta enpresa-kudeaketari, berdintasunari, kalitateari eta abarri buruzko foroetan hedatuta.	
Ba 2 Erantzunkidetasuna eta kontziliazioa sustatzea lan eta gizarte esparruan	(% 2,17)	Ba 2.1. Kontziliazioa ez da dirurik kostatzen" sensibilizazio kanpaina egitea, erantzunkidetasun alorrean enpresen errendimenduari lotutako abantailak sustatzeko.	<p>Egindako sensibilizazio kanpaina kopurua.</p> <p>Aitorpen publikoa jaso duten enpresa kopurua, kontziliazioaren eta erantzunkidetasunaren inguruan egin dituzten praktikak direla eta.</p>
Ba 9. Proiektu partekatuak eta praktika egokien esperientziak sortzea toki eremuetan, eta lurraldeko politiken transferentzia bermatzea	(% 1,30)	Ba 9.1. Behar eta aukeren mapa bat egitea, kontziliazio erantzunkidearen arloan ekintza partekatuak garatzeko Gipuzkoako udalerrri batean, eragile sozioekonomikoen, eragile sozialen eta erakundeen eskutik.	Toki mailan inplikaturiko dagoen eragile kopurua esparruka (herri administrazioa, enpresak, gizarte eragileak).
		Ba 9.3. Burututako prozesuaren eta bere emaitzen hedapen eta sozializazio plana diseinatzea eta ezartzea.	
In 13. Foru esparruan barne koordinazioa hobetu eta indartzea, indarkeria matxistaren emakume biktimei ahalduntzeko arreta eraginkorra bermatzearen.	(% 2,61)	In 13.1. Indarkeria matxistari aurre egiteko foru politika koordinatzeko batzorde politiko-teknikoa abian jarri eta bere eginkizunetan indartzea.	<p>Haurren eta nerabeen babeseko zerbitzuak eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak babesteko eta gizarteratzeko atalak batera esku hartutako kasuen igoera.</p> <p>Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak babesteko eta gizarteratzeko atalak eta Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak modu koordinatuan lan egin duten kasuen kopurua.</p>
		In 13.2. Batzorde politiko-teknikoa berdintasunean eta indarkeria sexistan espezializatutako laguntza teknikoaz hornitzea, aholkua eman eta burutzen den lanaren jarraipena eta sistematizazioa egin ditzan.	



Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
<p>In 14. Arreta emateko foru zerbitzuetan plangintza, jarraipen eta etengabeko ebaluazioa egiteko mekanismo egonkorak hobetzea, esku-hartzea berdintasunaren ikuspegitik egiten dela eta emakumeak ahalduzko balio duela ziurtatzeko.</p>	<p>(% 1,30)</p>	<p>In 14.3. Proiektu pilotu bat garatzea indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeekin berariaz lan egiten duten elkarteekin, emakumeen norberaren eta taldekako ahalduzkoan hobetzearen, beren autonomia pertsonala erreparatzeko eta berrezartzeko esparruan.</p>	<p>Indarkeria matxistaren biktime diren emakumeak babesteko, Foru Aldundiak eman dituen zerbitzu guztien urteko jarraipen txostenak egitea (bai/ez).</p> <p>Aipatutako zerbitzuen ebaluazio mekanismoen ondorioz, indarkeria matxistaren biktime diren emakumeak babesteko zerbitzuetan sartutako hobekuntzen kopurua.</p> <p>Indarkeria matxistaren biktime diren emakumeen seme-alabei dagokienez, esku-hartze planean balorazio espezifikoa dutenen ehunekoa.</p>
<p>In 15. Erakundeen arteko koordinazioa Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalekin sendotzea</p>	<p>(% 0,44)</p>	<p>In 15.1. Udalerrietako Berdintasun ataleko eta gizarte zerbitzuetako langileen artean elkarlanerako espazio bat sortzea, elkar ezagutu eta elkarri laguntzeko, zerbitzuari buruzko informazioa eguneratze aldera, eta indarkeria sexistaren egoerei arreta emateko lan-eredu bat, emakumeak ahalduzkoan lagundu eta beren bizitza era autonomoan gobernatzeko gaitzen dituen, adostera begira.</p> <p>In 15.2. Udal mailan erakundeen arteko koordinaziorako protokolo eredu bat sortzea, indarkeria sexistaren biktime arreta hobetzea bermatzeko duena.</p> <p>In 15.3. Berdinsarean indarkeriaren alorreko berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako euskal udalerrien sare- egiten den lana koordinatzea eta indartzea, eragina duelarik Gipuzkoako toki administrazioan.</p>	<p>Bilera horietan parte hartu duten udaletako berdintasuneko eta gizarte zerbitzuetako teknikarien ehunekoa.</p> <p>GFAko berdintasuneko eta gizarte zerbitzuetako teknikariek eta lurraldeko udaletakoek egindako bileren kopurua.</p> <p>Indarkeria matxistaren biktimei arreta ematera bideratuta, lurraldean dagoen protokoloaren koordinazio espazioan parte hartzen duten udalerrien kopurua eta zein ehunekoa den lurraldeko biztanleriari dagokionez.</p>
<p>In 16. Koordinazio instituzionala indartzea, Lurralde eremuan eta EAE eremuan.</p>	<p>(% 2,17)</p>	<p>In 16.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordean era aktiboan parte hartzea (alderdi politikotik zein teknikitik), Emakundek koordinatuta, eta baita aipatutako institutuak sustatzen dituen erakunde arteko beste koordinazio gune batzuetan ere.</p> <p>In 16.3. Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobea egiteko erakunde arteko II. Akordioan lurraldeko jarraipen batzorde bat sortzea bultzatzea, alderdi politikotik zein teknikitik.</p> <p>In 16.5. Emakundek eta Eudelek sustatuta, Berdinsarea-Berdintasunaren aldeko eta indarkeria sexistaren aurkako euskal udalerrien sarearekin lankidetzan aritzea indarkeria matxistaren aurkako borrokan.</p>	<p>Indarkeria matxistaren alorrean, EAE mailan, egin diren bilera teknikoaren eta politikoen kopurua.</p> <p>Erakunde arteko II. Akordioaren jarraipena egiteko batzordearen bilera kopurua, batzorde hori sortu ondoren.</p>



Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
<p>In 17. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko esparruan erreferentzia puntuak diren Euskadiko nahiz Estatuko edota Nazioarteko beste erakunde eta entitate batzuekin lankidetzan aritzea.</p>	<p>(% 1,30)</p>	<p>In 17.2. Sakontasunez ezagutzea Gipuzkoan garatzeko moduko erreferentzia puntuak izan daitekeen jardunbide onen bat.</p> <p>In 17.3. Egokia bada, indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei foru arreta emateko alorrean esperientzia pilotu bat diseinatu, abian jarri eta sistematizatzea.</p>	<p>Harremanetan jarritako entitateen kopurua.</p>
<p>In 1. Indarkeria matxistaren emakume biktimei arreta emateko atalei atxikitako foru- nahiz udal-langileek berdintasunaren eta indarkeria matxistaren inguruko berriazko gaikuntza hobetzea.</p>	<p>(% 1,74)</p>	<p>In 1.5. Urtero prestakuntzako lurralde plan bat egitea berdintasuneko eta indarkeria sexistaren prebentzioari buruzko ikastaroak eginez, indarkeria sexistaren emakume biktimei arreta emateaz arduratzen diren udal langileei zuzendua berariaz.</p>	<p>Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko foru zerbitzuei dagokienez, kontratatutako entitateen barruan zuzenean lan egiten duten pertsonen ehunekoa, zehazki, aipatutako kontratuetako klausula sozialak betez berdintasunaren alorrean prestakuntza espezifikoa dutenen ehunekoa.</p> <p>Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko udal zerbitzuetan lan egiten duten udal langileen ehunekoa, zehazki, berdintasunaren eta indarkeria matxistaren alorrean Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako 15 orduko eta gehiagoko prestakuntza espezifikoa izan dutenen ehunekoa.</p> <p>Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko udal zerbitzuetan lan egiten duten Foru Aldundiko langileen ehunekoa, zehazki, berdintasunaren eta indarkeria matxistaren alorrean Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako 50 orduko eta gehiagoko prestakuntza espezifikoa izan dutenen ehunekoa.</p>
<p>In 3. Bermatzea lurraldean badaudela hainbat mekanismo aztertzeke, batetik, indarkeria matxistako egoeren bilakaera, eta, bestetik, elkarrekin nahiz erakundeetatik ematen zaien erantzuna.</p>	<p>(% 1,74)</p>	<p>In 3.1. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Think Tank bat abian jartzea eragile estrategikoekin (elkarteak, unibertsitatea, erakundeetako arduradunak, adituak), hausnarketa partekatua egiteko, balizko ikerketa lerroak identifikatzeko, eta indarkeria matxistaren zergatiak, agerpenak eta emakume biktimei arreta hobeto ezagutzeko. Etorkizunari begira, gaiaren inguruko kluster modura eratu dadin.</p> <p>In 3.3. Indarkeria matxistaren biktimei jasaten duten eskubideen urraketa aitortzeko, ordaina eskaintzeko eta urratutako eskubideak leheneratzeko ekimenak diseinatzea eta abian jartzea.</p> <p>In 3.5. Indarkeria sexista baloratzeko tresnekin loturiko jardunbide egokiak identifikatzea, EAEn indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen arreta hobetzeko erakundearteko koordinazioaren barruan, eta bereziki Emakunderekin lankidetzan.</p>	<p>Indarkeria egoeren eta arazo horri emandako erantzunen bilakaera aztertzeke mekanismotzat jo daitezkeenez, gaiaren inguruan prestatutako dokumentu eta txostenen kopurua.</p>



Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
In 4. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren fenomenoaren ezagutzan aurrera egitea, gertatzen den esparru guztietan eta adierazten den forma guztietan.	(% 2,17)	In 4.6. EAE barruko eta EAetik kanpoko esperientzia arrakastatsuak aztertu eta ezagutzera, indarkeria matxistaren alorrean prebentzioa eta arreta hobetu ahal izateko.	Indarkeria sexistaren fenomenoak hobeto ezagutzeko egin diren azterketa eta analisi kopurua.
In 11. Haur eta nerabeak sustatu eta artatzeko foru politikak Berdintasun balioak bultzatu eta indarkeria matxista prebenitzen lagunduko duela bermatzea.	(% 2,17)	In 11.5. Udaletako berdintasuneko eta gazteriako zerbitzuen arteko lankidetzan lantzea Beldur Barik bezalako ekimenak bideratu ahal izateko. In 11.6. Berdinbidean programa indartzea, udal txikiek baliabide gehiago izan ditzaten landa eremuko gazteen artean berdintasuneko balioak eta indarkeria sexistaren prebentzioa lantzeko.	Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren alorrean kaudimen teknikoak eskatzen duten klausulak betetzeko antolatutako udalekuak kudeatzeko kontratatutako entitateen ehunekoa. Haur eta gazteei zuzenduta, indarkeria sexistaren prebentziorako jarduerak edo programaren bat garatu duten lurraldeko udalerrien kopurua, Berdinbidean parte hartzen dutenena, hain zuzen. Beldur Barik programari lotuta eta haur eta gazteei zuzenduta, indarkeria sexistaren prebentziorako jarduerak edo programaren bat garatu duten lurraldeko udalerrien kopurua.
In 5. Indarkeria sexistaren eta indarkeria sortzen duten genero ezberdintasunen aurrean gizarte gaitzespena handitzea, Foru Aldundiak sustapen eta eredu lana eginez.	(% 2,17)	In 5.1. Gizartearen sentsibilizatzeko ekintzak egitea, hausnarketa, eztabaida eta jabetza sortzen dituzten genero ezberdintasunei eta indarkeria sexistari dagokionez.	Emakumeen kontrako indarkeria baztertzeko GFAk antolatutako ekitaldi publikoen kopurua. Indarkeria sexistari lotutako gaiak edo kanpainak dagokionez, sare sozialetan eta GFAko web orrian izandako interakzio kopurua.
In 7. Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko eta horren aurrean sentsibilizatzeko funtsezkoak diren gizarte eragileekin elkarrizketa egiteko bideak zabaltzea eta sendotzea.	(% 0,44)	In 7.1. Indarrean dauden elkarrizketa-bideak erabiltzea, sendotzea eta, egokia bada, bide berri batzuk sortzea, emakumeen elkarteak indarkeria sexistaren emakume biktimei arreta emateko foru baliabideei buruz informatuta mantentzeko, prebenitu, hauteman, lagundu eta bideratzeko funtsezko eragileak izan daitezkeen neurrian. In 7.2. Emakumeen etxeak indartzea, indarkeriaren emakume biktimei arreta emateko, prebenitu eta bideratzeko tokiko erreferentzia gisa. In 7.3. Lurraldeko elkarte feministei eta emakumeen elkartei zuzendutako diru laguntzen esparruan berariazko ildo bat ezartzea emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko eta horren aurrean sentsibilizatzeko proiektu berritzaileak babestearren.	Emakume feministen elkarte sareari emandako diru laguntzekin gauzatutako proiektuen kopurua, betiere indarkeria matxistaren kontrako sentsibilizazioa eta prebentzioa sustatzeko helburua dutenen kasuan. Indarkeria sexistaren alorrean, emakume elkarteak eta talde feministek GFArekin izandako elkarrizketen kalitate balorazioa (1-10). Emakumeen Etxeak indartzera bideratutako ekintzen kopurua, indarkeria sexistaren kontrako prebentzio eta sentsibilizazio prozesuan funtsezko eragile sozialak diren aldetik.



Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
In 8. Emakumeek eta LGTBI kolektiboek lan esparruan jasaten duten indarkeria matxistari egokitasunez heltzea sustatzea, bai foru administrazioan bertan, bai Gipuzkoako enpresetan, eta baita ere genero indarkeriaren biktima diren GFAko langile emakumeek.	(% 1,30)	In 8.2. Lurralde mailako protokolo eredu bat sortzea tokiko administrazioan jazarpen sexista eta sexu jazarpena prebenitzeko.	Lan zentroetako jazarpen sexista eta sexu jazarpenaren kontrako protokoloak martxan jartzeko GFAk bultzatu duen neurriren bat onartu duten lurraldeko enpresen ehunekoa. Jazarpen sexista eta sexu jazarpenaren kontrako protokoloak dituzten udalen ehunekoa. Genero indarkeria edo jazarpen sexista eta sexu jazarpena jasan duten GFAko emakume langileen kopurua, egoera horiei aurre egiteko dauden barne prozedurak erabili dituzten kasuetan.

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak, euskarazko administrazio atalaren aitortzea du. Eta horrek, euskara, laneko zein harremanetarako hizkuntza nagusia bihurtzen du gurean. Baita, herritarren harreran, laneko prestakuntza eta sustapenean, kontratazio administratiboan eta aplikazio informatikoetan.

Kuantifikazioa: 86.161,92 (% 4,34)

Kategoria	Kategoria %	Nola
1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezoak	(% 3,61)	1.1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezoak
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	(% 1,44)	1.2.1. Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta papeleria
		1.2.2. Jendaurreko ekitaldiak
1.3. Webgunea eta sare sozialak	(% 3,65)	1.3.1. Webgune eta sare sozialen edukia
2.1. Bezeroekiko/Herritarrekiko harremana idatziz zerbitzua eskaini edo produktua emateko orduan	(% 21,74)	2.1.1. Idatzizko harremanak bezeroekiko/herritarrekiko
		2.1.2. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak
		2.1.3. Produktua
2.2. Bezeroekiko/Herritarrekiko harremana ahoz zerbitzua eman eta produktua eskaintzeko orduan	(% 8,70)	2.2.1. Telefonoz eta aurrez-aurre burututako harremanak
		2.2.2. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak
3.2. Komunikazio bertikala eta horizontala idatziz	(% 6,52)	3.2.1. Informaziorako/Komunikaziorako tresnak.
		3.2.2. Lan-bileretako idatzizko hizkuntza-erabilera
		3.2.3. Erakundearen barne harremanetarako idatziak
3.3. Komunikazio bertikala eta horizontala ahoz	(% 6,52)	3.3.1. Erakundearen barruko lan-bileretako ahozko euskararen erabilera
		3.3.2. Erakundearen barruko telefonozko harremanak
		3.3.3. Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak

Kategoria	Kategoria %	Nola
5.1. Administrazioa	(% 13,04)	5.1.1. Administrazioekiko idatzizko harremanak
		5.1.2. Administrazioekiko ahozko harremanak
		Deialdi eta ekitaldietan hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da. Bilerak eta ekitaldien antolamendu fasean hizkuntza trataera zehatza definituko da, interpretazio beharrak barne.
		Udalekin harremanetan (komunikazioak, aurkezpenak, udal txostenetan) euskarari lehentasuna emango zaio.
		Berariaz harremana euskaraz izan nahi duten udaletara zuzendutako ingurumen ebaluazio txostenak euskaraz bideratzeaz gain, gero eta txosten gehiago euskaraz sortzeko hurratsak emango dira
		Hizkuntza irizpideak finkatuko dira dena delako erakundeekiko harremanei eta koordinazioari begira.
5.2. Hornitzaileak (finantza-erakundeak, produktu-eta zerbitzu-hornitzaileak...)	(% 8,70)	5.2.1. Hornitzaileekiko idatzizko harremanak
		5.2.2. Hornitzaileekiko ahozko harremanak
5.3. Bestelako harremanak (aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak)	(% 8,70)	5.3.1. Beste entitateekiko idatzizko harremanak
		5.3.2. Beste entitateekiko ahozko harremanak
6.2. Bezeroak/zerbitzua: Hizkuntzen kudeaketa bezeroekiko/herritarrekiko harremanetan eta produktuen/zerbitzuen garapenean integratuta dago	(% 17,39)	6.2.1 Bezeroak/Herritarrak, zerbitzuak/produktuak eta hornitzaileen kudeaketa

PARTAIDETZA PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Beren izaera edo funtzioak direla eta, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzen duten entitate publiko eta pribatuekin partaidetzarako eta lankidetzarako harremanak eta bideak ezarri ahal izateko, Gipuzkoako Lurralde Historikoan GUNEA deituriko solaskidetza politikorako esparru parte hartzaile bat dugu. Bertan mugimendu feministarekin eta berdintasunaren aldeko emakume elkarteekin hartu-emanak ditugu, eta, era horretan, helburu bikoitza lortzen dugu: emakumeengan eragina duten foru politiken eta berdintasuna sustatzeko berriazko politiken osaketan, aplikazioan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea; eta, emakumeen autonomia eta jabetasuna sustatzea, bizitza publikoaren, kulturalaren, ekonomikoaren eta sozialaren alderdi guztietan herritartasun aktiboaren jardunbideak indartuz.

Kuantifikazioa: 101.089,97 (% 5,10)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Norekin
1. Espazio edo egitura parte-hartzaile bat	(% 16,67)	Gizarte solaskidetzarako espazioaren bidez, GUNEA	Herritar antolatuak, Herritar ez antolatuak
2. Politika publiko baten informazio eta kontrastea	(% 83,33)	Berdintasunerako erakunde barneko politiken koordinaziorako egituren bidez	Herritar antolatuak, Beste administrazioak, Teknikariak
		Informazio eta kontrasterako lan bileren bidez	
		Gipuzkoako berdintasun teknikarien lan gunearen bidez	
		Ekintzen kontraste eta jarraipenerako lan bileren bidez	
		Aholkularitza zerbitzu baten bidez	



PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2017	2018	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros (%)				
			2019	2020	2021	2022 eta hurrengoak/ 2022 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	430.465,00	486.892,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	912.300,00	912.300,00	88.965,00				88.965,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	555.000,00	585.000,00					
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.897.765,00	1.984.192,00	88.965,00				88.965,00
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital							
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	1.897.765,00	1.984.192,00	88.965,00				88.965,00

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	486.892,00				486.892,00	
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	912.300,00		88.965,00		1.001.265,00	
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	585.000,00				585.000,00	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.984.192,00		88.965,00		2.073.157,00	
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital						
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	1.984.192,00		88.965,00		2.073.157,00	

Sarrerren kapituluak / Capítulos de ingresos	2017	2018	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS			
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS			
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES			
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes			
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES			
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital			
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras			
Guztira / Total			